

JOSEFINA

ASKI zaku ttipian sartu zaizkio zazpi urtez metatzen arituriko ondasun guziak. Mihiseak ez ditu bereak, eta ohatzeari erantzirik utzi ditu gela bazterrean, mordoilo bat eginik. Arropa xehea, garbitu berria, objektu kuttunenak biltzeko baliatu du: aitak oparituriko zilarrezko katea, esne zopak hartzeko erabili ohi duen katilua... Eta hain hauskorrak ez diren bertze jabetzen ondoan ezarri ditu zakuaren hondoan, itxuraz aski modu desordenatuan: Françoisek oparituriko arrosa idortua, amak hilean behin huts egin gabe bidalitako gutunak, bere izerdiz aurrezturiko libera guziak eta duela ordu erdi eskuetatik kendu nahi izan dioten pasaportea.

Tentuz erantzi ditu mantal zuria eta soineko beltza, tentuz bildu objektu guziak, eta duen karrikako arropa txukun bakarra janztearekin batera itxi du larruzko poltsa, arnasa sakon hartuaz. Ez da harrabotsik entzuten leiho bakarreko gelatxoan, hain da ari lapur baten moduan lanean, isilean.

Marie-Clairek soilik susma dezake memento horretan zer dagoen gertatzeaz, hari kontatu baitzikio etxeko jabea eritu zenetik pairatu behar izan dituen amesgaiztoak. Ez zekien noiz arte iraunen zuen; noiz erranen zuen *aski da*.

Eta orain ailegatu da unea, zer eta esaldi kaxkar batengatik. “Emadazu pasaportea”. Ezin izan du gehiago. *Aski da*. Ez du onartuko halakorik gehiago.

Ganberari azken begiratua bota, eta atea kirrinkarik atera gabe ixten saiatu da, egurra puztua izanagatik. Hortik korridore luzera, eta eskailera guziak jautsi ditu lehen solairura ailegatu arte. Irekirik dauden leihoetatik sartzen den karrikako auto, zaldi, autobus eta jendearen joan-etorrien hotsa baizik ez da aditzen sarrera nagusian. Arratsaldeko hirurak dira, eta etxeko nagusiak siestako mementorik sakonenean daude gaurgero. Mahai nagusia gauerako prest utzi du, bazkarikoak bildu ondotik egunero egiten duen bezala. “Nork zerbitzatuko izanen ez duten zopa baten-tzako plater zokodunak”, pentsatu du berekiko. Baina ez dio penarik eman.

Anitzetan amestua zuen une hau eguneko nekeak jota lotara sartu aitzineko minutuetan. Baina ez zuen uste horrela etorriko zenik: bat-batean. Esaldi hori izan da, esaldi bat bakarrik. “Emadazu pasaportea”. Ausartu ez da ba? Ez dio ia erantzun ere egin. “Emadazu pasaportea”. *Aski da*. Esaldi bakar batengatik?

Begiak itxi eta azken aldiz usaindu ditu etxe zikin horretako bazterrak: argizaria, xaboia, karea eta lurrina. Itxurak zaintzeko moduko produktuak jabeentzat; eskuak zartarazi dizkietenak berari. Oroituko ditu, baina ez ditu berriz han usainduko: ez horixe. Begiak handi ireki, atarirainoko azken mailak fite jautsi, eta badoa, azkenean, kanpora. Sasi-jauregi hartara ez dela berriz itzuliko agindu dio bere buruari.

MARIE

Le TGV à destination de Bordeaux-Saint-Jean va partir dans quelques minutes. Il desservira Vendôme, Villiers-sur-Loir...

Zementu beltzeko nasaren gainean zutik dago Marie Dozagarat, sakelako telefonoari so. Takoidun zapata beltz ez altuegiak, galtza urdin argiak eta atorra zuria ditu soinean, eta urte guziko kargamentuarekin bizkar gainean, izerditan eri da. Motots batean bildua du ile beltz luzea, eta bi ile xerlo zintzilika ditu bisaia aitzinean, horiek ere tantaka. Dutxa hartu du gaur goizean, baina alferrik, dagoen bero sapak eta urduritasunak usain azkarra eman baitiote besapeetan.

Le TGV à destination de Bordeaux-Saint-Jean va partir dans quelques minutes oroitarazten dio urruneko oihartzun batek, baina Mariek kasurik ere ez dio egiten Montparnasseko geltokiko bozgorailutik ateratzen den emakume ahots errepikakorrari. *Tous les passagers qui vont à destination d'Hendaye devront...* Eta Marie telefonoari soilik begira, *J* letraren azpian, hala agindu baitio Internet bidez erosi duen bidaiaria txartelak: hantxe esperatzeko, zut. Sakelakoaren pantaila, ordea, bera bezain geldi dago ia:

notifikaziorik ez inon, Twitterrekoak salbu. Eta ez du gogorik kazetari eta intelektualek egunaren hasierari buruz diotena errepasatzeko: izanen du horretarako tarte handia-gorik bortz ordu pasatzeko bidaian, wifirik bada.

Mintzatzen segitzen du bozgorailuko emakumeak, eta trenaren abiatzeko orduak hurbiltzen; eta Marie telefonoarekin elkarrizketa bat abiatu nahian. Baina elkar-hizketarik ez. Hartzailearen faltan...

Trapu zaharrez jantziriko gizonetzko bizardun bat pasatu zaio paretik, eta ikara eman dio, muturraren aitzinean paratu zaion arte ez baitu sumatu bi zentimo eske heldu zen agurearen presentzia, kiratsa bi kilometrorra nabaritzeko modukoa duen arren. Egia erran, Montparnasseko ohiko giroarekin bat egiten du gizonarenak, eta ez zuen zertan ohartu: pixa usaina, janari lasterrarena, definitzen zaila den aire girotuaren hondar hori... guziek bat egiten dute soilik bizi izan duenak ezagutu dezakeen nahasketa batean. Hitz bakarrean: Paris-Montparnasse. Telefonoa kukutuz bezala, poltsikoan sartu du neska gazteak libre zuen eskua, alegia eginez, eta gehiegi bilatu gabe *Non, désolée* xalo bat bota dio gizon zahartuari, irribarrea okertuaz batera. Eskaleak bidean segitu du, *Merci quand même* aurpegiaz, hurrengo bidaiari dirudunaren bila.

Horrelako jendeak zer pentsatua ematen zion lehen Marieri, baina hiru urtez egunero bakarriketan eta eskean dabiltzan eroak gurutzatzen aritu ondotik automatikoa egin zaio ia. Eta arreta minutu gutiz desbideraturik, sakelakoaren pantailari adi da berriz Marie; eta sakelakoak ez dio deusik ere adierazten. SMS bat jaso berri du, baina Orange Info bertzerik ez da, udarako promozio baten berri

emateko; ez bertzerik. *Kaka, merde, putain*. Hain sutsuki erran zion Julienek etorriko zela, gutienez agurtzeko muxua ematera. Segur, etorriko zela. Eta hain sutsuki sinetsi zion. Hain justu: ez zuen pentsatu, sinetsi baizik. Eta, ongi pentsatuz, aski sinesgaitza zen; baina...

Bagoi amaigabeko trena geltoki barnean da aspaldi, eta ireki ditu ateak Marieri egokitu zaion bigarren klaseko bagoiak ere. *J* letraren azpian erran dio txartelak zain egoteko. *J*, Julien bezala. Julien, zeinak etorri behar zuen beregana muxu ematera. Julien, zeina ez den etorri. Eta etortzen ez bada agian bi hilabetez berriz ikusiko ez duena, berarengana jausten ez bada. Baina nola joanen da ba Euskal Herriraino bi metro konbinazio egiteko gai ere ez bada izan?! Eta sakelakoaren pantaila geldituta: Twitterreko notifikazioak bi gehiago, alerta bat ere bai *Le Monde*-tik. Baina berari berdin zaio: eror dadila mundua beharrezkoa bada; Juliengen seinale bat nahi du Mariek.

Bidaiari gehienak iganak dira bagoira. Marie lehenagotik zegoen *J* letraren azpian, baina pasatzera utzi die bertzei, *allez-y*. Maletaz gainezka zegoen emakume beltzari eta haren alaba ttipiari utzi die lehenik, kortesiagatik. Eta bertze gainerako guzietan, utzikieriaz; ala esperantzaz. Eskuin eta ezker begiratu du berriz ere, eta berriz sakelakoaren pantailari, beheiti, betazalak erortzear. *Le train à destination de Bordeaux-Saint-Jean...* Emakume ezezagunaren ahotsak trena partitzez delat gogoratu dio bozgorailuetatik. Eta telefonoa sakelan sarturik, berak ere egin du jauzi bagoira. Aldi berean jo dio telefonoaren txistu hotsak, ozen, baina *Le train à destination de Bordeaux-Saint-Jean...* harrabotsaren erdian, ez da ohartu.

Bi bagoiren arteko maletategian bizkar-zaku astuna eta bi poltsak uztearekin batera abiatu da hegoalderantz abiadura handiko trena, triki-traka, triki-traka. Bere eserlekua bilatu gabe ikusi ditu pasatzen Mariek Montparnasse dorrea, hotel kateak eta *banlieue*-etako etxe orratz itsusiak. Gibelean utziz, triki-traka bakoitzeko, Science Po eskolako ikaskideak, La République-ko asanbladak, hirian barrena emandako paseo desordenatuak eta, horietan guzietan, Julien.

Gizon gorbatadun baten aldamenean egokitu zaio eserlekua, korridorearen ondoan. *Le Figaro* irakurtzen ari da, eta begiratu ere ez dio egin *Bonjour* labur batekin ondoan jarri zaionean. Kuraia pixka bat berreskuratu eta sakelakoaren pantailari eman dio azken begiratua. Notifikazio bakarra dago Facebookeko Messengerrean, eta mezu laburra: “Sentitzen dut, metroa galdu dut”. Igorlea: Julien Giraud.

Telefonoa indarrez hartu eta korridorearen erdira bota du, aski isil zegoen bagoiko bidaiarien arreta bereganatzeraino. Matelak gorritu zaizkio instant batez, eta lurrera begiraturik jaso du gailua, aurpegia kukutuz bezala: moketaren kontrako talkan ez du zauri handiegirik jaso Samsung J6 berriak, behinik behin. Ez berak muturrean bezain handia.

Triki-traka, triki-traka... Metroa galdu duela. Zinez? Zer uste duzu, ergela naizela? Ez dakidala aitzakia merke bat baino ez dela? Triki-traka, triki-traka... Bazekien. Edo bazekiela erraten dio bere buruari orain, triki-traka. Funtsean bazekiela. Baina sinetsia zuen, arrunt sinetsia, triki-traka, triki-traka. Agindutakoa beteko zuela, triki-traka, hain sutuki agindutakoa. Baina trena badoa, triki-traka, eta Julienek metroa galdu du. Eta Marie trenean doa,

triki-traka, eta Julienek metroa galdu du... Eta, triki-traka, triki-traka, ohartu gabe, triki-traka, gogoia pentsamenduetan galdurik, telefonoa eskuetan duela lo hartu du.

PAREKO emakumeak ernatu du, lo zegoela berriz lurre-ra erori zaion telefonoa eskura emanaz. Amets sakonean zegoen, eta begiak zimurturik behatu dio emakumeari: buruko hijab koloretsua eta oiha handi bat ditu soinean, aurpegia eta eskuak ez bertze guzia estaltzen dizkietenak, eta haur ttiipi bat aldamenean, erdi lokartua. Modako aldizkari bat irakurtzen ari zen, baina zangoen gainean pausatuta du Marieri telefonoa luzatzeko. *Oh, merci, madame* eskertu dio Mariek, matelak gorri. Eta berak ere liburuari ekitea hobe duela bururatu zaio. Doala pikutara Julien, eta doazela pikutara metro, plaza eta gainerako guziak. *Metroa galdu dut*. Bai zera!

Michel Houellebecq-en *Soumission* du eskuko zakuan, eta hasierako orritik irakurtzeari ekin dio, berriz. Aspaldi zuen hasia, baina ikasketetan ematen dizkieten hainbertze irakurgai eta lanen artean, ez du pazientziaz leitzeko tarterik hartu oraindik. Uda izan daitekeela aukera ederra horretarako, gogoratu zaio.

Marie izorratu egiten du nahi dituen gai eta liburuetan arakatzeko denbora falta horrek, izpiritu kritikoa lantzeko erraten dietelako behin eta berriz fakultatean, bereziki. Denek jakin behar dituzte azken orduko berriak, *Le Monde Diplomatique*-ko artikulu korapilatsuak irakurri, Twitterreko jarraitzaile izan, literatura eta saiakerak

irentsi... Baina, aldi berean, bistan da, bizitza soziala eduki, karrika eta auzo berriak deskubritu, zinemara joan, jendearekin solas egin... Eta hori dena, aldi berean, eta arnasa hartzen segituz, Marierentzat, ezinezkoa da. Klasekide anitzek guzi hori egitearen itxura egin ohi dute irakasleen aitzinean, eta tonu ozenean adierazten dute irakurri duten azken artikuluko aipu ponpoxoren bat edo bertze, baita hitz arranditsuz ahoskatu ere. Baina Marieri hipokrita iruditzen zaio arrunt: itxurakeriazkoa. Estereotipoak estereotipo, frantsesei buruz maiz duen inpresioa da hori: anitz eta ongi hitz egin bai, baina gero ahuntzaren gauerdiko eztula direla. Ezagutu ere egiten ez dituen marka entzutetsuetako galtza, gorbata eta alkandorak bai, baina apartamentuko komuna, gero, beti zikina.

Uste zuen Julien doi bat ezberdina izanen zela. Doi bat zintzoagoa, bere hitzei leialagoa. Interes handiz galdetzen zizkion Euskal Herriari buruzko zalantzak, nahiz eta erdia baino gehiago ulertzeko lanak izan, euskarazko hitz batzuk ikasiak zituen, eta gehiago ikasteko promesa ere egina zion Marieri. Solas interesgarri eta desordenatuak izaten zituzten Saint Martin kanaleko ertzetan latako garagarnoak hartuz eta Daumesnil lakuaren inguruan paseoan. Mundua aldatu nahi zuten Errepublika plazako asanbladetan eta Mouffetard karrikako *Happy Hour*-ean garagarnoa merke ateratzen zuten ostatu zaratatsuetan. Baina zikin hori ez zen gai izan muxu bat ematera ere joateko. Eta Parisetik urrunduz batera joaten ari zitzaizkion zakutik hartzera Julienekin egindako ilusioak. Metroa galtzeko bezain burugabea izan bazen, bere gain har zezala solaskide eta maitalea

ere galduko zuela, bederen, heldu den irailera arte. Hortik landa, ikusiko zuten.

Oraindik ekaineko lehen astea baizik ez zen, eta gogorra eginen zitzaion Marieri etenaldia, baina giroz aldatzeak ere on eginen ziolakoan zegoen. Gogoia zuen berriz Donibane Lohizuneko eta Berako lagunak ikusteko, besta eta gaupasa ederrak egiteko herritik hurbil eta Euskal Herriko edozein txokotan, mendian goiti eta beheiti paseoak emateko barkadadean, gaztetxean kontzertu ederren bat edo bertze entzuteko... Horrek guziak ahantzaraziko zizkion Julien, sasi-zientzia politikoak eta hiriko kaosaren xarma eder hura. Edo hala espero zuen.

OHARTU gabe, Houellebecqen nobela irakurtzeari utzi dio 12. orrialdean, eta liburuia geldi dauka begi parean hama-bortz minutuz geroztik. Beti gertatzen zaio gauza bera: ustez distrakzio tuntunetatik ihes liburu bat irakurtzen hasi, eta azkenean distrakzio tuntun berean erortzen da. Agian ez dela fakultatekoen errua hainbertze liburu irakurri ezina, erran du bere baitarako, autokritikaz. Pareko emakumeak liburuaren azalean begiak finko dituela ikusi du gainera, eta hein bat deseroso sentitu da Marie. Ez nabaritzeko bezala, bertze istant batez hartu du liburuia esku artean, orriak begiratu eta pasatu ditu ia batere irakurri gabe, eta denbora aski pasatu dela iruditu zaionean zakuan sartu eta ostatua duen bagoira hurbildu da, kafe eta txokolatina bila.

Jende gehiegi pilatu ez dadin jartzen dituzten mahai altu horietako baten ondoan zut gelditu da ostatu bagoian,

eta bizkarra kristalaren kontra kokatu du, trenaren triki-trakarekin eroriko ez bada kafea lasai hartzeko. Telefonoaren bateria kargatzeko entxufeak badira hor, eta, kablea loturik, sakelakoaren Block Notes-ean heldu diren asteetan egin nahi dituen gauzen zerrendari ekin dio:

- Amaiari deitu asteburuko planen bat egiteko
- Elkarretik pasa urtean zehar zerrendaturiko liburuak eta diskoak erostera
- Depilatzailarenera joan
- Galtza zuriak erosi sanferminetarako
- Amaxiri bisita egin
- Argazkiak disko gogorrera pasa
- Bigarren Mundu Gerla ondoko mementoren bat hautatu fakultateko bukaerako lanerako
- Aitari autoa eskatu
- EHZn laguntzaile izateko izena eman
- Bainu bat hondartzan (ea eguzki pixka bat hartzen dudan)
- ...

Zerrendatu duenaren erdia irailean bete gabe egonen dela dakien arren, ilusioa egin dio berriz herrira bueltatzearen ideiak. Doala Julien pikutara. Egun on, Euskal Herria!